

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapenaren Atala

Ebazpen honen bidez Vitoria-Gasteizko Udalean desgaitasun intelektuala duten pertsonak zerbitzu-laguntzaile gisa karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozeduren deialdia eta oinarriak onestea

2022ko maiatzaren 13an, Tokiko Gobernu Batzarrak desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat zerbitzu-laguntzailearen 14 lanpostu betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen; geroago, 2022ko uztailaren 29an, aldatu egin zuen hori. Lanpostuaren ezaugarriak: eskala, administrazio berezia; azpieskala, zerbitzu bereziak; mota, lanbideetako langileak; kategoria, laguntzailea; taldea, titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldea; 1 hizkuntza-eskakizuna, derri-gortasun-datarik gabe.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 75. artikulua desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora iristeko sistemei eta plazak gordetzeari buruzkoa da, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonak sartzeko sistema espezifiko bat ezartzen da bertan. Sistema horren bidez, hautaketa-prozesu independenteen deialdia egingo da, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonak sartzeko sistema espezifiko horretan jarduera intelektualean gutxienez ehuneko hogeita hamahiruko mugak dituzten pertsonen soilik parte hartu ahal izango dute.

Horren haritik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

Ebatzi dut

Lehena. Hautatze-probetarako deialdia egitea desgaitasun intelektuala duten pertsonen karrerako funtzionario gisa 14 lanpostu betetzeko. Lanpostuen ezaugarriak: eskala, administrazio berezia; azpieskala, zerbitzu bereziak; mota, lanbideetako langileak; kategoria, laguntzailea; taldea, titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldea; lanpostua, zerbitzu-laguntzailea; 1 hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

Bigarrena. Hautaketa-prozesu hau arautuko duten oinarriak eta gai-zerrenda onartzea. Oinarriak jarraian gehitzen dira, eta gai-zerrenda, eranskinean.

Hirugarrena. Oinarriak eta deialdia ALHAOn eta, laburtuta, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratzea; azken horren argitalpenak emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean,

argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 19an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzia
JON ARMENTIA FRUCTUOSO



Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako

AURKIBIDEA

IE
Irakurketa Erraza
bertsioa

Avuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Aurkibidea

Orrialdea

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia
desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



3

Deialdiaren oinarriak

3

- 1. Lanpostua eta funtzioak 4
- 2. Betekizunak 5
- 3. Eskabidea aurkeztea 6
- 4. Egokitzapenak 7
- 5. Zerrendetan onartutako eta baztertutako pertsonak 8
- 6. Epaimahai kalifikatzailea 8
- 7. Hautaketa-probak 9
- 8. Emaitzak argitaratzea 13
- 9. Lantokia aukeratzea 14
- 10. Lanean hastea 14
- 11. Aldi-baterako lan- zerrendak 15
- 12. Gai-zerrenda 16

Zerbitzuetako
laguntzailerako
plazen deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



2 / 17 orrialdea



AURREKO
horraildea

HURRENGO
horraildea

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



Vitoria-Gasteizko Udalak deialdia egin du desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako **karrerako funtzionario** izateko **14 plaza** eskaintzeko hautaketa-probetarako.

Lanpostua: **Zerbitzuetako laguntzailea.**



Deialdiaren oinarriak

Hautaketa-proba hauetan parte hartzeko bete behar dituzun arau eta baldintza guztiak dira deialdiaren oinarriak.

Deialdi honen oinarrietan atal hauek aurkituko dituzu:

1. Lanpostua eta funtzioak
2. Betekizunak
3. Eskabidea aurkeztea
4. Egokitzapenak
5. Zerrendetan onartutako eta baztertutako pertsonak
6. Epaimahai kalifikatzailea
7. Hautaketa-probak
8. Emaitzak argitaratzea
9. Lantokia aukeratzea
10. Lanean hastea
11. Aldi-baterako lan-zerrendak
12. Gai-zerrenda

Karrerako funtzionarioa.

Oposizio bat gainditu duten pertsonak Administrazio Publikoan lan finkoa lortzeko.

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



3 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA



1. Lanpostua eta funtzioak

Vitoria-Gasteizko Udalak desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako karrerako funtzionario izateko 14 plaza eskaintzen ditu.

Plaza lortzen duten pertsonek beteko duten lanpostua Zerbitzuetao Laguntzailearena da.

Plaza lortzeko hautaketa-proba batzuk gainditu behar dira.

Lanpostuaren funtzioak

Zerbitzuetao Laguntzailearen funtzioak honako zeregin haueetan laguntzea dira:

1. Jendeari Administrazioaren barruan leku batera iristeko moduari buruzko informazioa eta orientazioa ematea.
2. Materialak banatzea eta mezularitzaz arduratzea.
3. Biltegian laguntzea.
4. Paperarekin lotutako zereginak egitea, hala nola: dokumentuak fotokopiatu, inprimatu, eskaneatu eta suntsitzea. Fotokopiagailu eta papera suntsitzeko bezalako makinek papera eta tinta dituztela egiaztatzea. Makina horietako bat matxuratu bada, arduradunei jakinaraztea.
5. Eraikinak garbitzea eta zaintzea.
6. Bilera-gelak eta dokumentuak prestatzea, prestakuntza emango duten pertsoneri laguntzeko.
7. Ontziak birziklatzea, puntu-berdea eta ingurumena zaintzen laguntzeko beste zeregin batzuk egitea.
8. Agintzen diren eta Zerbitzuetao Laguntzaile lanpostuarekin zerikusia duten zeregin guztiak egitea.

Zerbitzuetao
laguntzailearen
plazak daude
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



4 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

2. Betekizunak



Betekizunak hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko bete behar dituzun betekizunak dira.

Hautaketa-prozesu honetan, betekizun hauek bete behar dira:

1. Espainiako nazionalitatea izatea.
2. Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.
3. 16 urte edo gehiago izatea eskabidea aurkezten duzunean.
4. % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortuta izatea.
5. Administrazio Publikoan lan egitea debekatuta ez izatea **diziplinazko espediente** bat izateagatik edo beste arrazoi batzuegatik.
6. Lanpostu honen eginkizunak betetzeko gaitasuna eta osasuna izatea.
7. Inskripzio-tasak dagokion epean ordaintzea.




Diziplinazko espediente.

Lanean hutsegite larria egin duen pertsona baten aurkako neurriak hartzeko prozesua.

Titulua

Ez duzu hezkuntza sistemako titulu ofizialik izan behar hautaketa-proba hauetara aurkezteko.

Zerbitzueta
laguntzaile
plazaren deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



5 / 17 orrialdea



3. Eskabidea aurkeztea

Nork aurkez dezake eskabidea?

Zuk aurkez dezakezu.
Zu ordezkatzen zaituen eta horretarako baimena duen beste pertsona batek ere aurkez dezake.

Eskabidean jarri behar duzu probak zein hizkuntzetan egin nahi dituzun: euskaraz edo gaztelaniaz.

Noiz aurkeztu behar da?

Deialdia EAOean argitaratzen denetik **20 egun baliodun** dituzu eskabidea aurkezteko.

Non aurkeztu behar da?


Eskabidea aurkez dezakezu interneten edo aurrez aurre:

- **Interneten:** udaleko web orrian: www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos
- **Aurrez aurre:** hitzordua eskatu behar duzu bi toki hauetako baterako:
 - Gizarte etxeetako Herritarrei laguntzeko bulegoak.
 - Teodoro Doublang kaleko 25. zenbakiko bulego teknikoak.

Izen-ematearen tasak

Izen-ematearen tasa da jarduera batean parte hartzeko ordaindu behar den dirua. Hautaketa-probetan parte hartzeko, **4,09 euroko izen-emate tasa** ordaindu behar duzu.

Diru-sartzea nola egin behar duzun azalduko dizute. Dirua ordaintzean zure izen-abizenak esan behar dituzu.




EAO.
Estatuko Aldizkari Ofiziala.
Bete beharreko legeak eta beste adierazpen ofizial batzuk argitaratzen dituen dokumentua da.




Egun baliodunak.
Astelehenetik ostiralera arte.

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako





6 / 17 orrialdea

AURKIBIDEA



20 EGUN







4. Egokitzapenak

Behar baduzu egokitzapen bat eska dezakezu hautaketa-probak egiteko, intelektuala ez den beste desgaitasun bat izateagatik, haurdun egoteagatik edo zure haurrari bularra ematen aritzeagatik.

Eskabidearen oharren atalean behar dituzun egokitzapenak azaldu behar dituzu.

Funtzio Publikoaren Sailari ere jakinarazi behar diozu, helbide elektronikoa honetan:

procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org.

Eskabidea probaren eguna baino

10 egun baldiodun lehenago bidali behar duzu.

Zerbitzuetako
laguntzaileak
plazaren deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



7 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak.

Zure euskara-maila
egiaztatzeko eta titulu ofizial
bat lortzeko probak.

5. Zerrendetan onartutako eta baztertutako pertsonak



Onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko egoitza elektronikoko argitaratzen da. **“Nire hautaketa-prozesuak”** atalean.

Baztertuta dauden pertsonak 10 egun baliodun dituzte kexa aurkezteko eta arrazoiak azaltzeko.

6. Epaimahai kalifikatzailea



Nork osatzen du?

Lehendakari batek, Giza Baliabideen burua izango dena, idazkari batek eta 3 udal teknikaririk.


Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek profesionaltasunez jardungo dute, inpartzialak izango dira eta lana egiteko beharrezko prestakuntza izango dute.

Zertaz arduratzen da Epaimahai kalifikatzailea?

- Hautaketa-probetako ariketak zuzentzeaz.
- Pertsona guztiek deialdi honetako arauak betetzen dituztela.

Ezin da epaimahaiko kide batekin ere harremanetan jarri modu pertsonalean.

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



8 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

7. Hautaketa-probak



Faseak

Prozesu honetako hautaketa-probek 2 fase dituzte:

- Oposizio fasea:** idatzizko 2 probaz osatuta.
- Lehiaketa fasea:** Epaimahai kalifikatzaileak **merituak** balioztatuko ditu. Prozesu honetan meritu bezala balioztatzen da euskarazko titulua izatea.

Merituak.

Lanpostu baterako zure gaitasunak, prestakuntza edo esperientzia erakusten duten dokumentuak.

Oposizio fasea

Fase hau nahitaezkoa eta baztertzaillea da.

Hau da, ez baduzu gainditzen, ez zara hurrengo fasera pasako.

2 probaz osatzen da eta egun desberdinetan egiten dira. 30 egun baliodun baino gehiago pasa behar dira proba batetik bestera.

Zerbitzueta
laguntzaile
plazaren deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



9 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

1. proba

Proba honetan **1, 2, 3, 4, 5 eta 6 gaiak** sartzen dira.

Probaren ezaugarriak:

- 35 galderaz osatzen da.
- Galdera bakoitzak 3 erantzun ditu aukeran. Bakarra da zuzena.
- Galdera bakoitzak puntu 1 balio du.
- Ez dizute punturik kenduko gaizki erantzuteagatik edo ez erantzuteagatik.
- 2 ordu dituzu ariketa hau egiteko.
- Proba honetan gehienez 35 puntu lor ditzakezu.

2. proba egin dezakezu

1. proba gainditu ez baduzu ere.

2. proba

Proba honetan **7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 13 gaiak** sartzen dira.

Probaren ezaugarriak:

- 30 galderari erantzun behar diezu.
- Galdera bakoitzak 3 erantzun ditu aukeran. Bakarra da zuzena.
- Galdera bakoitzak 2 puntu balio ditu.
- Ez dizute punturik kenduko gaizki erantzuteagatik edo ez erantzuteagatik.
- 2 ordu dituzu ariketa hori egiteko.
- Proba honetan gehienez 60 puntu lor ditzakezu.

Zerbitzuetako
laguntzailerako
plazen deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



10 / 17 orrialdea



Oposizio fasea gainditzeko gutxienez 47,5 puntu lortu behar dira 2 proben artean.

Gehienez ere 95 puntu lor daitezke 2 proben artean.


	1. proba	2. proba
Ikasi behar diren gaiak	1, 2, 3, 4, 5 eta 6	7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 13
Galderen kopurua	35	30
Probak irauten duen denbora	2 ordu	2 ordu
Galdera bakoitzean aukeratu daitezkeen erantzunen kopurua	3	3
Erantzun zuzenak galdera bakoitzean	1	1
Erantzun bakoitzak balio duen puntu kopurua	1	2
Gaizki dauden galderengatik puntua kentzen da?	Ez	Ez

Lehiaketa fasea

Fase honetan, zure euskararen ezagutza balioztatzen da. 5 puntu balio ditu. 2 modutan lor ditzakezu:

- B1 edo HE1 profila egiaztatzen duen dokumentua aurkezten duzu.
- B1 edo HE1 profila egiaztatzeko proba egiten duzu.

Zerbitzuetako laguntzarako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



11 / 17 orrialdea



Proben datak

Probak egingo dira oinarri hauek EAOean argitaratzen direnetik gutxienez 4 hilabeteko epean.

2 proben data, ordua eta lekua argitaratuko dira
1. probarako 10 egun baliodun falta baino lehen.

Nork egin ditzake probak?

Hautaketa-prozesuan onartzen diren pertsonak.

Informazio garrantzitsua proben egunerako

- Proba egiten ez baduzu edo berandu iristen bazara deialdi honetatik kanpo geratzen zara.
- **Ezinbesteko arrazoiren** batengatik ezin baduzu egin, epaimahiak berriro dei zaitzake probak egiteko.
- Probaren egunean dokumentu hauetako batekin identifikatu behar zara:

- NANA
- Gidabaimena
- Pasaporte

Ezinbesteko arrazoia.

Aurreikusi eta saihestu ezin diren eta zure betebeharrak betetzen uzten ez dizkizuten egoerak. Adibidez, istripu bat.

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektualak duten pertsonentzako



12 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA



8. Emaitzak argitaratzea

Epaimahaiak notak argitaratuko ditu Udalaren webguneko Egoitza Elektronikoa, **“Nire hautaketa-prozesuak”** atalean.


Zure notaren emaitza bidal diezazukete ere eskabidea egiten duzunean adierazten duzun posta elektronikora.

Behin-behineko notak argitaratzen direnean, hurrengo 10 egun baliodunetan erreklamazioa egin dezakezu.

Epaimahaiak erreklamazioei erantzuten die eta behin betiko notak argitaratzen ditu **“Nire hautaketa-prozesuak”** atalean.

2 pertsonak edo gehiagok nota bera lortzen badute, epaimahaiak berdinketa hautsiko du probetan puntuazio gehien nork lortu duen dioten arauak jarraituz eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko legeak betez.

Zerbitzuetako
laguntzaileak
plazen deialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



13 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

9. Lantokia aukeratzea



Probetan puntuazio handiena lortu duten pertsonak dira lantokia aukera dezaketen lehenak. Hau da, lan egingo duten postua aukera dezakete eskuragarri daudenen artean.

Nota kontuan hartzeaz gain, pertsona bakoitzak lantokia aukeratu behar du, lanpostu bakoitzak dituen zereginen eta pertsonak dituen gaitasunekin egin ditzakeen zereginen arabera.

10. Lanean hastea




Epaimahaia notak argitaratu eta beteko duzun lanpostua zein den jakin ondoren, 10 egun baliodun dituzu eskatzen dizkizuten dokumentuak aurkezteko. Dokumentu horiek Funtzio Publikoaren Sailean aurkezten dira.

Funtzionario izendatzen diren pertsonak **ALHAO**ean argitaratzen dira.

Zure izena argitaratzen denean, 30 egun baliodun dituzu **lanpostuaz jabetzeko** eta lanean hasteko.

Zerbitzueta
laguntzaileko
plazan daialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



14 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

ALHAO

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.

Arabako lege eta ohar garrantzitsuak argitaratzen dituen dokumentu ofiziala.

Lanpostuaz jabetu.

Agintarien aurrean hitz ematen duzue zure lanpostuko betebeharrak beteko dituzula.

Dagokizun egunean ezin baduzu lan egiten hasi ezinbesteko arrazoi batengatik, hala nola haurdun egotea edo erditu izana, bajan zauden denbora errespetatzen da eta denbora hori lanegun gisa kontatzen da.

Zure lanpostuaz jabetzen ez bazara edo lanpostuari uko egiten badiozu, lanposturako eskubidea galduko duzu. Epaimahai kalifikatzaileak puntuazio altuena duen hurrengo pertsona izendatuko du.



11. Aldi-baterako lan-zerrendak

Lan-poltsa

Lan-poltsa pertsonen zerrenda bat da. Pertsona hauen proben puntuazioaren arabera, Administrazioak deituko die denbora zehatza duten lanpostuak betetzeko.

Lan-poltsa hau deialdi honetan lanposturik lortu ez duten pertsonentzat da.

Beste administrazio batzuetako lan-poltsan egoteko, eskatu egin behar duzu eta administrazioei utzi behar diezu zure datu pertsonalak lan-eskaintzetarako erabiltzen.

Zerbitzuetako laguntzailerako plazen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako



15 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA

12. Gai-zerrenda



Gai guztien edukia
Irakurketa Errazera egokituta dago.

1. PROBAREN GAI-ZERRENDA

- 1. GAI: 1978ko Espainiako Konstituzioa: Oinarriko printzipioak eta betebeharrak.
- 2. GAI: Udalaren antolakuntza.
- 3. GAI: Udalaren Administrazio-egitura.
- 4. GAI: Enplegatu publikoak.
- 5. GAI: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea.
- 6. GAI: Administrazio publikoa. Langileak: motak eta betebeharrak.

2. PROBAREN GAI-ZERRENDA

- 7. GAI: Bisitarien sarbide-kontrola, identifikazioa, informazioa, arreta eta harrera.
- 8. GAI: Dokumentuak erreproduzitzeko makinak erabiltzea.
- 9. GAI: Mandatuak.
- 10. GAI: Paketeak, dokumentazioa eta biltegiko materiala jasotzea, banatzea eta entregatzea.
- 11. GAI: Artxiiboak eta dokumentuak. Artxibategi batean egin beharreko zereginak.
- 12. GAI: Gorabeherak lantokian.
- 13. GAI: Birziklatzea.


Zerbitzueta
laguntzailerako
plazan daialdia
desgaitasun intelektuala
duten pertsonentzako



16 / 17 orrialdea



AURKIBIDEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

IE
Irakurketa Erazta
berriak

AURKIBIDEA



DESGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONAK GASTEIZKO UDALAREN ZERBITZURA ZERBITZU-LAGUNTAILEAREN KATEGORIAN KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO OINARRIAK.

Lehena. Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da zerbitzu-laguntzailearen kategoriako 14 dotazio hutsak betetzea. Dotazio horiek 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkio, zeina 2022ko maiatzaren 13an eta uztailaren 29an onetsi baitzuen Gobernu Batzarrak, horiei EEP2024ri dagozkion ehuneko 2ko kupoa aplikatzearen ondorioz sortutako lanpostu hutsak gehituko zaizkie, txanda irekiko lehiaketa-oposizio bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko (2230E):

Eskala: administrazio berezia.

Azpieskala: zerbitzu bereziak.

Mota: lanbideetako langileak.

Kategoria: laguntzailea.

Taldea: beste lantalde profesional batzuk.

Lanpostua: zerbitzu-laguntzailea.

Destino-osagarria: 11.

Berariazko osagarria: 250.

1. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun datarik gabe.

1.2. Lanpostuaren zereginak eta ezaugarriak.

Lanpostu horiek administrazio-atal bakar baten mende egongo dira organikoki, baina beste atal batzuetara atxikita egon ahalko dira, eta bertan bete beren eginkizunak eta laguntza-zereginak. Besteak beste, eginkizun hauek izan daitezke, esleitzen zaien atal zehatzaren arabera:

1. Laguntza jendeari eta barneko erabiltzaileei bulegoen kokapenari buruzko informazioa eta orientazioa ematen.
2. Lankidetzan aritzea mezularitzako, materialen banaketako edo biltegiko jardueretan oinarritzko euskarri-lanetan.
3. Laguntza erreprografia-jardueretan (erreprodukzioa, inprimaketa, eskaneatzea, azaleztatzea, dokumentuak suntsitzea...), eta oinarritzko euskarria ematea unitatearen berezko ekipoei (makina suntsitzaileak, fotokopiagailuak, etab.).
4. Lankidetzan aritzea eraikinak garbitzeko eta zaintzeko lanetan.
5. Laguntza kudeaketa administratiboaren eta dokumentalaren oinarritzko euskarrian, eta teknikariek lankidetzan aritzea prestakuntza-jarduerak garatzen, bilera-gelak prestatzen edo dokumentuen oinarritzko digitalizazioan. Dokumentuen kudeaketan laguntza, horiek ordenatzen edo sailkatzen, horien erabilera errazteko, eta antzeko beste oinarritzko jardura batzuk.
6. Ingurumen-jardunbide egokiak betetzen laguntza, ontziak birziklatzen eta puntu berdea kudeatzen, eta euskarri emateko beste lan batzuk egiten.
7. Orobat, lanpostuaren kategoriarekin eta kualifikazioarekin bat datozelarik agintzen zaizkien zereginak betetzea, aurrekoei kalterik egin gabe.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.
- Iragarki-taula elektronikoan.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan: San Antonio kaleko 10.ekoa, gizarte etxeak, Ariznabarreko kiroldegia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25).
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Gasteiztik deituz gero), edo 945 161616 (Gasteiz kanpotik).
- Deialdi honi berariaz eskaintako herritarren postontzian.
- Posta elektronikoz: procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org

1.4. Oinarri hauen irakurketa errazeko dokumentu sinplifikatu bat egingo da.

Bigarrena. Betekizunak.

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

2.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako espainiar nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen arabera langileen joan-etorri librea aplikagarri zaion herrialderen batekoa izatea.

Orobat parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoren bateko hiritartasuna dutenen ezkontideek —zuzenbidez banatuta ez badaude—, baita haien ondorengoek nahiz ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere gurasoen kontura bizi badira.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik hamasei (16) urte beteta edukitzea, eta nahitaezko erretirorako adinera iritsia ez izatea.

2.3. Ehuneko 33eko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala aitortua izatea. Betekizun hori honela egiaztatuko da:

- Arabako Lurralde Historikoko organo eskudunek aitortutako desgaitasunak: egiaztapena ofizioz egingo da. Informazio hori ezin bada bide horretatik lortu, interesdunari ziurtagiri hori aurkezteko eskatuko zaio. Ondorio horietarako, eskaera aurkezteak berekin dakar Gasteizko Udalarai baimena ematea administrazio eskudunei desgaitasuna egiaztatzeko eskatzeko.
- Arabako Lurralde Historikoa ez den erakunde batek aitortutako desgaitasunak: desgaitasun intelektuala egiaztatzen duen ziurtagiria erantsi beharko zaio eskabideari.

2.4. Dossier zigortzaileraren bat dela medio administrazio publikoen zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetua ez egotea.

2.5. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Udal honetako segurtasun, higiene eta ergonomia zerbitzuak zehaztuko du lanpostuaren araberako gaitasuna, karrerako funtzionario izendatu aurretik.

2.6. Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak (7.13 tasa) ordaindu izana (zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan.

2.7. Deialdi honen eskaintza bestelako lantalde profesional batzuk taldeko lanpostuei dagokie, eta ez da beharrezkoa hezkuntza-sisteman aurreikusitako titulazio ofizialetakoren bat edukitzea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak —urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua— seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautaprobetan parte hartu nahi dutenek beren izenean edo ordezkari kreditatuaren bidez izapidetu ahal izango dute eskabidea, honako bide hauek erabiliz:

Elektronikoki, Udalaren webgunearen bitartez (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak), edo aurrez aurre, hitzordua eskatuta, gizarte etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan edo Teodoro Dublang kaleko 25.eko bulego teknikoetan.

Era berean, 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz aurkeztu ahal izango da eskabidea.

3.2. Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Ondorio horietarako, larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Zein lanpostutarako izena ematen duen, talde horretakoei dagokion kuota ordaindu beharko du izangai bakoitzak, izena emateko unean indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera. (2024. urtean, 4,09 euro).

3.5. Tasaren ordainketa nominala izango da. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordainduko da, eskabideak aurkezteko epean.

3.6. Parte hartzeko eskabideari ez zaio erantsi beharko lehiaketa-faserako merezimenduei dagokien agiririk.

3.7. Izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematiko egiteko, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik, kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitzaie.

Laugarrena. Borondatezko ariketak eta egokitzapenak.

4.1. Borondatezko euskara-proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatze probak egin nahi dituzten izangaiek —merezimendu gisa— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da. (1. HE – B1).

4.2. Beste desgaitasun batzuk edo amatasuna direla eta probetan egokitzapenak egitea behar dutenek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, eta Funtzio Publikoaren Sailari posta elektronikoz jakinarazi (procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org); idazkian, desgaitasun mota eta eskatzen den egokitzapena zehaztu beharko da, eta proba egitekoa den eguna baino 10 egun baliodun lehenagotik gutxienez jakinarazi beharko da hori.

4.2.1. Proben egokitzapenak, intelektuala ez den desgaitasuna dela eta. Desgaitasuna aitortua dutenek eskatu ahal izango dituzte. Hautatze-probak egiteko beharrezko diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo ditu epaimahaiak. Nolanahi ere, ezingo du proba horien edukia itxuragabetu, ezta eskatu beharreko gaitasun-maila jaitsi edo murriztu ere, ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Aginduan aurreikusitakoaren arabera; agindu horren bidez, irizpide orokorrak ezartzen dira desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan denbora gehigarriak egokitzeko.

4.2.2. Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahal izango dute.

4.2.3. Galdera-koadernotxoaren ezaugarriak: Arial letra, 14 tamainakoa, eta lerroartea, 1,5. Probaren jarraibideak eta lehen azterketaren eredu-orria —test erakoa— alde aurretik argitaratuko dira. Bigarren ariketaren eredu oinarri hauei erantsi zaie.

Bosgarrena. Onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emango du funtzio publikoaren zinegotziak; egoitza elektronikoa ("nire hautaketa-prozesuak") argitaratuko da hori, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

5.2. Onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoa ("nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada probak egitekoak diren egunerako, interesdunek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

Zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Aurkeztu beharreko

dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: giza baliabideen buruak (lehendakaria izango da), hiru kide teknikok (bat IVAPek proposatuta), idazkariak eta horien ordezkoeak.

6.2. Inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute epaimahaikoek. Hautaketa-organoen osaera orekatua izango da emakumeen eta gizonen artean, eta sexu bakoitzak gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkari izango du. Hautaketa-organoetako kide guztiek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan beharko dute, eta horietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da. Epaimahaikideen erdiak, gutxienez, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazioaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, eta guztiek ere maila akademiko berekoa edo goragokoa.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Epaimahaiak berdintasun- eta aniztasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez, dagokien udal zerbitzuek emana.

6.4. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren eta balorazio automatikoa izango ez duten oposizio-faseko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

6.5. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.6. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.7. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoen izenen zerrenda.

6.8. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAPen) esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak egitea.

6.9. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.10. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzeko izango dute.

6.11. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, izangaiak egindako okerren nahiz faltasutatsunen berri ematen diolarik.

6.12. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du epaimahaiak hautatze-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.13. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.14. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b artikulua ildotik, egoitza elektronikoa (“nire hautaketa-prozesuak”) izango da hautaketa-prozesuko erabakiak, deiak, azterketa-deialdiak eta bestelako komunikazio-ekintzak ofizialki argitaratzeko lekua, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek. Hala ere, egoitzan hautaketa-prozesu honi buruz argitaratzen den argitalpen oro harremanetarako emandako helbidera ere bidaliko da, posta elektronikoz.

6.15. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

6.16. Epaimahaietan parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Hautatze-prozesua.

Hautatze-prozesuak bi fase izango ditu: oposizioa eta lehiaketa.

Oposizio-fasea. Gehieneko puntuazioa: 95 puntu.

Ariketa bakarra: nahitaezkoa eta baztertzaila.

Bi proba izango ditu, banaka baztertzailak ez direnak, eta egun desberdinetan egingo dira, horien artean gutxienez 30 egun balioduneko epea utzita.

Lehenengo proba. Teorikoa, gai-zerrendako lehen eta seigarren gaien arteko gaiak buruzkoa (1. eranskina). Probak 35 galdera izango ditu, eta galdera bakoitzak 3 erantzun aukeran. Erantzun zuzenengatik puntu 1 emango da, eta erantzun oker, baliogabe edo anitzengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez zigorrik ez punturik emango. 35 puntu gehienez. Probaren iraupena 2 ordukoa izango da.

Bigarren proba. Idatzizko proba praktikoa, lanpostuaren berezko zereginak edo funtzioak egiteko izangaiek dituzten oinarriko jokabide-errepertorioak (RBC) egiaztatzeko eta gai-zerrendako ezagutzen aplikazio praktikoa egiteko; 1. eranskineko zazpi eta

hamahirugarren bitarteko gaiei buruzkoa izango da. Probak 30 galdera izango ditu, eta galdera bakoitzak 3 erantzun aukeran. Erantzun zuzenengatik 2 puntu emango da, eta erantzun oker, baliogabe edo anitzengatik eta zuri daudenengatik ez da ez zigorrik ez punturik emango. 60 puntu gehienez. Probaren iraupena 2 ordukoa izango da.

Oposizio-fasea gainditzeko, gutxienez 47,5 puntu lortu beharko dira, bi probetako puntuazioak batuta.

Gutxienezko 47,5 puntuko puntuazioa lortzen duten izangaien kopurua eskaintako lanpostuen kopurua (14) baino txikiagoa bada, puntuazio-ordenaren arabera hamalaugarrena den izangaiak lortzen duena izango da ariketa gainditzeko gutxienezko puntuazioa, betiere 30 puntutik beherakoa ez bada.

Lehiaketa-fasea: gehienezko puntuazioa, 5 puntu.

Euskara jakitearen balioespena. Izangaiak lehen hizkuntza-eskakizuna (B1) aurretik egiaztatuta badu edo horretarako proban egiaztatzen badu, 5 puntu emago zaizkio. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna (1. HE, B1) egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data.

Zortzigarrena. Ariketen nondik norakoak.

8.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak) egongo da eskuragarri lanpostuaren zereginen katalogoa eta egokitzen jotzen den gainerako dokumentazioa.

8.2. Izangaiei deialdi bakarria egingo zaie ariketa bakarreko bi probak egiteko, eta bi proben artean gutxienez 30 egun balioduneko tartea egongo da. Epaimahaiak nahitaezko probak egiteko zehazten dituen egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin.

8.3. Nortasun agiria, pasaporte edo gida-baimena eraman beharko dute izangaiek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko; orobat, epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak eraman beharko dituzte.

8.4. Ariketak ezingo dira hasi deialdi honen iragarpena BOEn argitaratzen denetik lau hilabete igaro aurretik. Ariketako bi probak egiteko lekua, eguna eta ordua gutxienez lehen ariketa egin baino 10 egun baliodun aurretik iragarriko dira.

8.5. Prozesuan onartutakotzat ageri diren pertsonen joan beharko dute probetara; orobat, kautelazko neurri gisa, onartutako eta baztertutako pertsonen buruzko ebazpenaren kontra funtzio publikoaren zinegotziaren aurrean berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu dutenek edo aurkeztekotan direnek, baldin eta hura oraindik ebatzi ez bada. Kasu horretan, hautatze-prozesuan jarraituko dutela jakinarazi beharko diote epaimahaiari, procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz, beharrezkoak diren baliabideak eta materialak jar ditzan.

8.6. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsoneri aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako proba egin aurretik ama izatea; erditze-data proba egiteko data baino 42 egun natural aurreragokoa izatea gehienez, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren 42 egun natural baino laburragoa eta 56 egun baino luzeagoa ez den epe baten barruan egin beharko da. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

8.7. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak idatziz azalduko zaizkio epaimahaiari, eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

8.8. Inork probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko jarduerarik egiten badu, edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala sortzen duenik, epaimahaiak hautaketa-prozeduratik kanpo utzi ahal izango du, eta jardun horiek bilkura-aktan jasoko ditu. Hautaketa-prozesuko edonolako proba mota egiten den bitartean, ez da onartuko lehen aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen bitarteko eta/edo gailu elektronikoak eduki edo erabiltzea. Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da, bai probatik, bai hautaketa-prozesutik, eta ez da, inola ere, horren ondoriozko lan-poltsan sartuko.

Bederatzigarrena. Emaizak argitaratzea.

9.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira (“nire hautaketa-prozesuak”). Eskabidea egiten denetik aurrera, epaimahai kalifikatzaileak edo funtzio publikoaren sailak egindako argitalpenak posta elektronikoz ere bidaliko dira, eskabidean emandako helbide elektronikora.

9.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearren.

9.3. Egoitza elektronikoan (“nire hautaketa-prozesuak”) argitalpen berriak egin diren jakinarazpenak posta elektronikoz igorri jakinaraziko dira. Bigarren mezu elektroniko bat ere bidaliko da, egoitza elektronikoan sartu den dokumentazioarekin. Abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

9.4. Proba bakoitzaren erantzun-txantiloia proba egiten den egun berean argitaratuko da, eta behin-behineko emaitzak jakinarazi ondoren, 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko (galderen deuseztasunari, txantiloiko akatsei edo irakurketa-akatsei dagokienez), eta behin ebazitakoan, epaimahaiak proba bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

9.5. Horretarako epearen barruan izangaiek aurkezten dituzten berrikuspen-eskabide eta erreklamazio guztiak epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak onesteko hartzen duen erabakian aintzat hartu eta erantzun dituela joko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

9.6. Azterketa- eta merezimendu-faseak burutu ondoren, ariketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera hurrenkeran, proba bakoitzean lortutako puntuak nahiz azken puntuazioak zehaztuta.

9.7. Azken kalifikazioan berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da lehentasun-hurrenkerak, hurrenez hurren:

Lehena. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten du—21. artikuluan xedatutakoaren arabera, gaikuntza-maila bera izanez gero, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeen presentzia ehuneko 40tik beherakoa den kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren. Berdinketa sexu bereko bi pertsona edo gehiagoren artean gertatzen bada, lehen ariketan puntuaziorik handiena lortu duena proposatuko da, eta, hurrenez hurren, goranzko ordenan, hautaketa-prozesua kontuan hartuz.

Bigarrena. Oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

Hirugarrena. Bigarren proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

Laugarrena. Lehenengo proban erantzun oker gutxien egin dituenaren alde.

Bosgarrena. Aurreko hiru irizpideak erabili ondoren berdinduta jarraitzen duten izangaien arteko zozketa.

9.8. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, Gasteizko Udaleko funtzio publikoaren zinegotziari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Hamargarrena. Destinoak aukeratzea.

Epaimahaiak proposatuta, hautatutako pertsonak destinoa aukeratu ahal izango dute lortutako azken puntuazioaren arabera, hargatik eragotzi gabe prebentzio zerbitzuak lanpostuak esleitzea, hautatutako pertsonen gaitasun funtzionalaren eta lanpostuan bete beharreko funtzioen arabera.

Hamaikagarrena. Izendatzeko proposamena.

11.1. Behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, epaimahaiak 10 egun balioduneko epea ezarriko du deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko agiriak funtzio publikoaren sailean aurkezteko, sailak ofizioz lortzerik izan ez badu. Baldin eta adierazitako epean, ezinbesteko kasuak salbu, proposatutako pertsonak eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak aurkezten ez baditu edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira

haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskarian datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea.

11.2. Lanpostuak ezingo dituzte bete, inolaz ere, betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ez duten lehiakideek.

11.3. Epaimahai kalifikatzaileak hautaketa-prozesua gainditu dutenen aldeko izendatzeko proposamena egingo du, bete beharreko lanpostu guztiak bete arte, azken puntuazioaren hurrenkera kontuan hartuz.

Hamabigarrena. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

12.1. Proposatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatuko dira, funtzio publikoaren arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio, eta hori ALHAOn argitaratuko da.

12.2. Funtzio publikoaren zinegotzi ordezkariak izendapena egin ondoren, 30 egun balioduneko epean jabetu beharko du lanpostuaz izendatutako pertsonak, jakinarazpenaren berri ematen zaion egunaren biharamunetik kontatuta.

12.3. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak —arrazoi justifikaturik gabe— lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du. Halakoetan, beste izendapen bat proposatuko du epaimahaiak.

12.4. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 5. xedapen iragankorraren m) letran xedatutakoaren arabera, sartzen diren talderako ezarritako gutxieneko mailari dagokion gradu pertsonala esleituko zaie funtzionario sartu berriei.

12.5. Haurdunaldia, erditzea nahiz erditu ondoko aldia dela eta izangaiak lanpostuaz jabetzerik ez badu, medikuak edo ospitalean alta eman arte atzeratuko da hori egitea. Hori gertatuz gero, aldi baterako ezintasuna suertatu ez balitz legokiokkeen izango da ondorio administratibo eta ekonomikoen data.

12.6. Ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario izateko eskubideak, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baita hautatutako pertsonak izendatu aurretik edo lanpostuaz jabetu aurretik uko egiten dutenean ere, edo lanpostuaz jabetzeko unean bertan lanpostua gorde gabe eta benetan lanean hasteko aukerarik gabe eszedentzia eskatzen dutenean ere, funtzio publikoaren sailak beste izendapen-proposamen bat egiteko eskatuko dio epaimahai kalifikatzaileari, hautaketa-prozesuaren azken emaitzen puntuazio-ordenaren arabera dagokien izangaien alde.

Hamahirugarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

13.1. Egokitzen diren aldi baterako langile beharrei erantzuteko kontratazio-zerrendak sortuko dira deialditik —proba guztiak gainditu bai baina lanposturik eskuratu ez dutenekin osatuko dira—.

13.2. Izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adierazi ahal izango dute baimena ematen duten Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei honako hauei buruzko datuak lagatzeko: izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen lagapen horren helburu bakarra eta eskusiboa izango da haiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea legez aurreikusitako baldintzetan, eta beren adostasuna espresuki jasotzen ez bada ez dutela horretarako baimenik ematen ulertuko da.

Hamalagarrena. Bibliografia.

14.1. Deialdiaren barruan 1. eranskineko gai guztiak garatzen dituen gai-zerrenda sartuko da, irakurketa errazeko bertsioan editatua. Material horretan oinarrituz egingo dira ezagutza-probak.

Hamabosgarrena. Lotutako legeria.

15.1. Oinarri hauek bat datoz Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74. artikuluan ezarritako lege-aginduekin. Artikulu horren arabera, euskal sektore publikoko enplegu publikoaren eskaintzetan kupo bat gordeko da desgaitasunen bat duten pertsonak betetzeko, zehazki, gutxienez deitutako lanpostu hutsen ehuneko zazpi. Halakotzat hartuko dira indarreko legerian zehazten direnak, administrazio bakoitzeko langile guztien ehuneko bira iristearren.

15.2. Deialdia 11/2022 Legeko 75. artikuluan ezarritako prozeduraren barruan kokatzen da, zeina desgaitasun intelektual edo mentala duten pertsonak sartzeko sistema espezifikoa baita. Sistema hori hautaketa-prozesu independenteen deialdian datza, eta prozesu horietan jarduera intelektualean edo mentalean gutxienez ehuneko hogeita hamahiruko muga duten pertsonak soilik parte har dezakete.

15.3. Oinarri orokor hauek legez araututakoaren mende daude, eta, bereziki, honako hauetan xedatutakoaren mende: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren Erreformatzeko Neurriei buruzkoa; Eusko Legebiltzarraren 10/1982 Oinarriko Legea, azaroaren 29koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dena; 2007ko martxoaren 22ko Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak

bermatzeari buruzkoa, eta Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

Hamaseigarrena. Aurkaratzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek oinarri hauek, deialdia bera nahiz horren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

Lehen probarako gai-zerrenda.

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa: oinarritzko printzipioak eta betebeharrak.
2. gaia. Udalaren antolakuntza.
3. gaia. Udalaren administrazio-egitura.
4. gaia. Enplegatu publikoak.
5. gaia. Gizon eta emakumeen berdintasunerako Legea.
6. gaia. Administrazio publikoa. Langileak: motak eta betebeharrak.

Bigarren probarako gai-zerrenda.

7. gaia. Bisitarien sarbide-kontrola, identifikazioa, informazioa, arreta eta harrera.
8. gaia. Dokumentuak erreproduzitzeko makinak erabiltzea.
9. gaia. Mandatuak.
10. gaia. Paketeak, dokumentazioa eta biltegiko materiala jasotzea, banatzea eta entregatzea.
11. gaia. Artxiboak eta dokumentuak. Artxibategi batean egin beharreko zereginak.
12. gaia. Lantokiko gorabeherak.
13. gaia. Birziklatzea.